

## Bertsolaritza eskola ordutan Mendialdeko ikastetxe guztietan

Bertsozale Elkarteko irakaslea, Oihane Perea, klasea ematera etorri da bi astez behin, Mendialdeko 3 ikastetxeetara. 90 haur eta gaztek landu dute bertsolaritza aurtan.

Haur eta gazteek primeran pasa dute bertsoak egin eta entzunez, euskaraz jolastuz eta bide batez hainbat bertso emanaldi burutu dituzte, azkena Maiatzaren 24an Mendialdea ikastetxeko jaiaren baitan guztiek batera.

**GU ERE BERTSOLARI** programa "bertsolaritzaren curriculum" lanean oinarritzen da eta lau eremu lantzen ditu: **MUSIKA, KULTURA, HIZKUNTZA** eta **TREBETASUN PERTSONAL ETA SOZIALAK**.

### IKASTETXEAK

**Kanpezu:** Mendialdea ikastetxea

**Maeztu:** Maeztu Herri eskola

# Gu ere bertsotan



## Mendialdeko bertso familia koxkorra

**MENDIALDEKO bertso-eskola**  
**GAZTE** eta **HELDUEN** taldea  
XVII. Mendea kultur elkartean  
(16 urtez gorakoak)  
**Asteazkenetan 20:00etan**

**HAURREN TALDEA:**  
**8-12 urteko haurrak**  
**Kanpezuko Kultur Etxean**  
asteazkenetan, 18:30-19:30  
(datorren ikasturtean aldaketak egon daitezke)



## Ikastetxeetan bertso emanaldiak



Abenduaren 20an Mendialdea IPI zentroko Bigarren Hezkuntzako ikasleek euskararen eguna ospatu zuten. Irati Anda, Julen Zulaika, Iñaki Viñaspre eta Iker Pastor izan ziren bertsoetan eta talde bakoitzak ere bere ekarpena egin zuen, agurrak, bertso-sortak dibertigarriak eta bertsolariantzako gaiak jarri zituztelarik. Gabonetako oporrei ongi etorria emateko plan bikaina. Mendialdea ikastetxeko Lehen Hezkuntzako aurrek ere, egun horretan bertan, bertsoetan eman zieten Gabonetako oporrei ongi etorria Kanpezuko kultur etxean.

Udaberriean Maeztuko eskolan euskararen astea ospatu zen eta herri kirolak izan ziren protagonista. Maeztu eskolako 5. eta 6. mailako ikasleek emanalditxoak prestatu zuten gai horren inguruko koplak kantatuz.

## Mendialdeko ikastetxeen topaketa Maiatzaren 24an



Arabako mendialdeko ikastetxe guztietako 5. eta 6. mailako haurrek eta bigarren hezkuntzako ikasleek bertso-festa mundiala eskaini zuten Maiatzaren 24an, Kanpezuko kiroldegian. Txalo zaparrada eta animoen artean Kanpezu eta Maeztuko txikienek bertso asmakizunak eta ikastola agurtzeko bertsoak taularatu zituzten eta DBHko ikasleek aldiz musika kantatu ezagunen moldaketekin dantzatuz eta kantatuz bete zuten bazkalordurako txanda. Umorea eta irribarreak izan ziren protagonista nagusiak, eta bertsoetan, euskaraz eman eta jasoz, ederki gozatu zuten bertaratutako ikasle irakasle guztiek larunbat eguerdia. Kurtso osoan landutako pastel goxoari ginda jarri geniola esan dezakegu, Zorionak urte osoan zehar eginiko lanagatik!!!



## Bertxoko sariketa Mendialdean



Neguko giroan murgilduta jokatu zen Bertxoko sariketako hirugarren eta azken kanporaketa. Kanpezuko Ibernalo aterpetxean, Julen Zulaika eta Paula Amilburu bikotea alde batetik, eta bestetik Jagoba Apaolaza eta Ander Solozabal bertsolariak aritu ziren, Iker Pastor gai-emailearen esanetara, jokoan zeuden finalerako azken bi txartelak lortu nahian.

Bertsolariek lan puntuagarria koplatan amaitu zuten, eta beraien azken agurrak entzun ostean jakin zen epaia, Ander Solozabal eta Jagoba Apaolaza sailkatu zuten epaileek.



Finala Aguraingo Iguaran elkartean jokatu zen, azaroaren 22an. Kanpoko hotzari kontra eginez, giro goxoa sortu zen. Lautadako Bertso-Eskolak prestatutako afari goxoaren ostean, kafe eta kopekin batera hasi zen saio. Bertakoek eta kanpotik etorritako entzuleek disfrutatu zuten saio umoretsuaz. 2013ko edizioko Txapeldunak Jon Ruiz de Pinedo eta Ruben Santxez izan ziren.

## Bertsoak Mendialdean herriz herri

**2013/7/27 Urizaharra.** Bertso-bazkaria. Julen Zulaika eta Oihane PErea

**2013/10/5 Urizaharra.** Bertso-saioa. Irati Anda Juan Mari Juaristi

**2013/11/10 Kanpezu** Azoka Eguna. Bertso-saioa. Sebastian Lizaso eta Irati Anda

**2013/11/15 Kanpezu.** Bertxoko Sariaketa. Bertso-afaria. Jagoba Apaolaza, Ander Solozabal, Julen Zulaika, Paula Amilburu

**2013/12/14 Kanpezu.** bazkaria eta bertso-pilota. Oihane Perea eta Julen Zulaika

**2014/2/14 Atauri.** Arabako Kuadrilla Artekkoa. Bertso-afaria.



*Gure eskualdeko txoko askotara heldu da bertsolarien aho-tsa azken urte hauetan, era askotako publikoak dastatu ahal izan du leku ezberdinetan egin diren formatu ezberdinetako emanaldiak tarteko.*

*Bertsolaritza eta bertsozaletasuna gure eskualdean leku propioa hartzen ari dira, jende askoren ahaleginari esker euskara esparruak berreskuratzen ari den bezala.*

*Etorkizunari itxaropentsu begiratzeko moduan gaude.*

**ESKERRIK ASKO**

**2014/3/22 Maeztu.** Bertso-pilota. Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña.

**2014/5/31 Bernedo.** Mendialdeko V. Euskararen Eguna. Bertso-pilota. Serapio Lopez eta Asier Otamendi.

**2014/6/6 Antoñana.** Bertso-afaria. Iñaki Viñaspre, Ruben Sanchez eta Paula



## ARABAKO BERTSO KUADRILLARTEKOA Mendialdean



Lagunak bildu, taldea sortu, saioa antolatu eta saioa egin. Bertsozaletasuna "gintza" bihurtuta, giro kolektibo batean murgilduta eta ondo pasatzeko intentzioarekin proposatu dira saioak Arabako Bertso Kuadrilla artekoan. Mendialdeko bertso-eskolak antolatuta Ataurin egin zen saio polit bat. Kanpezun astero elkartzen den taldea lehendabiziko aldiz jende aurrean ipini zen, ihauteri giroa nagusi, kolorez betetako saioa eskaini zutelarik. Gasteizko Errexala taldea lagun izan zuten eta puntuka, koplaka... bat-batean aritu ziren. Haizem@n albokariak idatzizko bertsoak kantatu zituzten alboka doinuak tartekatuz. Mendialdeko bertso-eskolak ere idatzizko sorta batean eskualdeari kantatu zion.



**Mendialdeko bertso-eskola  
(Maeltu eta Kanpezu)  
Kanpezuko kultur etxea  
01110 KANPEZU**

**Arabako Bertsozale Elkarte  
Benito Perez Galdos, z/g- Amaia Zentroa  
945 010505/ araba@bertsozale.com**

[www.bertsozale.com/araba](http://www.bertsozale.com/araba)

[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)

[www.bertsoa.com](http://www.bertsoa.com)



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava  
[www.alava.net](http://www.alava.net)

